



GU, BESTEAK

ANTZERKI-TAILER ANTIRRAZISTA







KREDITUAK

Metodologiaren egileak:

Ariana Larrondo (AKA Emilia) eta Idily Mérida.

Aurkezpen-testua: Ariana Larrondo (AKA Emilia)

Koordinatzaileak:

Juana Canga eta Cristina Plaza (Lumaltik Herriak)

Diseinatzaile Grafikoa: Karin Hernandez.

✿ EDUKIA ✿

“Gu, Besteak”

✿ Aurkezpena

✿ Jarraibideak

- Pertsonaiak
- Itzalak
- Txartek gorria

✿ Garapena

✿ Osoko bilkura

- Azken hausnarketa
- Denbora

✿ Gomendioak

✿ Edukia



AURKEZPENA



Esku artean duzun hau oso metodologia emozionala eta benetakoa da, eta enpatia eta pentsamendu kritikoa garatzeko helburua du, esperientziaren bidezko ikaskuntza erabiliz. Kasu honetan, bizipen-tailer bat proposatzen dugu. Horren bitartez, EAEko emakume arrazializatu, migratu eta disidenteen aurkako arrazakeria, diskriminazio, arbuio eta axolagabetasun soziala edo instituzionala adierazten duten erantzun sozial sotilak zein zuzenak bistaratu nahi ditugu, errespetuz eta enpatiaz.

Tailerra bertako pertsoneri zuzenduta dago. Horrekin, diskriminazioa eta indarkeria homofobia, arrazista eta generokoa bistaratu eta horri buruz hausnartu nahi dugu. Izan ere, diskriminazio eta indarkeria horiek modu bidegabean baldintzatzen eta mugatzen dute emakumeen bizitza. Hortaz, bidegabekeria horren aurrean dugun erantzukizunari buruz ere hausnartu nahi dugu. Antzerki-tailer horretan sei emakume migratu, arrazializatu eta disidenteren istorioak antzeztuko ditugu. Beren istorioetan, emakume horiek sei erakunde publikotatik igarotzen dira. Beraz, emakumeek erakunde horietako funtzionarioen rola izango dute (zapalkuntza erakutsiz), eta bertakoek zapalduen rola izango dute.

Sei istorio horietatik bostek Erdialdeko Amerikatik Europara migratu duten emakumeak dituzte protagonista. Hala, emakume arrazializatu, migratu eta disidenteen gorputzak zeharkatzen dituzten generoko, arrazako, klaseko, aniztasun sexualeko eta adineko zapalkuntzak erakutsi nahi ditugu. Emakume horiek, bada, migratzeko hainbat arrazoi dituzte: maitasuna, ikasketak, bizitzaren prekarizazioa, lurraldea defendatzeagatik heriotza-mehatxua pairatzea, edota LGTBIQ+ kolektiboak jasaten duen indarkeria. Azkenik, seigarren istorioan European jaiotako edo hazitako emakume arrazializatuek jasaten duten estigmatizazioa erakutsi nahi izan dugu.

Pertsonaia horiek migrazio fenomenoaren aniztasuna eta konplexutasuna erakusten dute.



Esate baterako, Itzelek bizileku-baimenik edo lan-baimenik gabe etxeko lanetan eta zaintza lanetan diharduten milaka emakume ordezkutzen ditu. Beren giza eskubideak aitortzen ez diren arren, emakume horiek Europan bizirauten dute, eta, aldi berean, beren seme-alabak mantentzen dituzte jatorrizko herrialdean.



Andrearen istorioak, bestalde, beren lanbidean jardun ezin duten eta lan prekarioekin bizirauten duten emakume migratu kualifikatuen kasua erakusten du. Hirugarrenik, Claudiaren istorioak sexu-indarkeria pairatu duten emakume migratuek osasun eskubidea erabiltzeko dituzten zailtasunak eta zaurgarritasuna erakusten ditu.



Halaber, Olatzen istorioak erakutsi egiten ditu Europan jaiotako zenbait emakumek beren arraza-fenotipoagatik jasaten dituzten diskriminazio ugariak. Izan ere, emakume horien jatorria eta partaidetza zalantzan jartzen dira etengabe.



Azkenik, Roxanaren eta Martaren biografiek erakusten dute pertsona askok erbesterratu behar izaten dutela beren segurtasuna bermatzeko. Roxanak bere identitate transexualaren ondorioz pairatutako indarkeriagatik erabaki zuen bere herrialdea uztea. Martak, aldiz, heriotza-mehatxua jaso zuen enpresa transnazional batek kontratatutako sikarioen eskutik, lurraldea defendatzeko egiten duen lanaren ondorioz.



Claudiaren, Olatzen, Roxanaren, Itzelen, Martaren eta Andrearen istorioek emakume migranteek eta arrazializatuek izan ohi dituzten erronketako batzuk erakusten dituzte; hain zuzen ere, beren eskubideak erabiltzeko zailtasunak, erakunde publikoetara jotzen dutenean (erroldatzea, osasun txartela, enplegua edo etxebizitza). Aldi berean, hainbat funtzionarioen eta, oro har, gizartearen tratu paternalistak eta diskriminatzaileak ere erakusten dituzte.



Haien eskubideak erabiltzeko oztopo eta diskriminazio horiek hainbat ondorio dituzte: haien garapen pertsonala eta profesionala mugatzen dute, bizitza prekarizatzen dute (enplegua, etxebizitza), eta marjinazioa, osasun mentaleko kalte larriak eta heriotza ere eragiten dituzte. Emakumeetako batzuk, gainera, amak dira, eta, beraz, beren kargu dituzten seme-alabengan ere eragiten dute baldintza horiek.

Pertsonaia guztiak migratuak edo arrazializatuak badira ere, zaurgarritasuna handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, haien aniztasunaren ondorioz. Hau da, diskriminazio, arrazakeria eta indarkeria egoerei aurre egiteko gaitasunak lotura zuzena du honako hauekin: beren kapital kulturala (esperientziak, jakintzak, balioak eta jarrerak), jatorrizko herrian dagoen familiaren mantenu bakarra izatea, harrera herrian familiarik edo bikotekiderik edukitzea, edo emakume talde edo elkarte batekin lotura izatea.

Zentzu horretan, “Laguntza Sarea”, gizarte erakunde gisa, metodologia honetan irudikatuta dago. Hark harrera eremu, laguntza sare edo sostengu emozionaleko eremu horiek ematen ditu, hala nola familia, bikotea, lagunak edo emakume taldeak eta elkarteak. **“Gu, Besteak”** metodologia benetako gertakarietan oinarritzen da; hain zuzen, Lumaltik Herriak elkarteak, alde batetik, Erdialdeko Amerikako giza eskubideen defendatzaileei eta aktibistei emandako bidelaguntzan eta, bestetik, Euskal Herrian emakume migratuekin eta arrazializatuekin egindako lanean ikusitako horietan.

Halaber, aurkezten dugun metodologia hau “Caminando en tus zapatos” tailer interaktiboan oinarritu da. Tailer horrek, bada, emakumeek tratu txarrak gainditzeko aurkitzen dituzten oztopoak erakusten ditu. Hala, 15 urte baino gehiago daramatza Erdialdeko Amerikako emakumeek pairatzen duten genero-indarkeria bistaratzen, eta bere helburua justiziako operadoreak eta gizarte osoa sentsibilizatzea da.

Metodologia sortzeko, prestakuntza-prozesu bat garatu zen, honako hauen lidergopean: Lumaltikeko taldea, Zapalduaren Antzerkian bi aditu (Leire Castrillejo Pérez eta Aratxo Angulo) eta migrazioetan eta generoan esperientzia duten bi emakume migratu (Nathalie Bejarano Castro psikologoa eta Emilia Larrondo soziologoa).

Bi hilabetez, hainbat kolektibotako hamabi emakume migratu eta arrazializatu aktore gisa trebatu ziren, Zapalduaren Antzerkiko tekniken bitartez (antzeppen-metodoak, beldur eszenikoa haustea, pertsonaia antzeztea eta haren edukia barneratzea). Gainera, tramite burokratikoari eta funtzionarioen, higiezin agenteen eta enplegatzaileen jardunbideei buruzko ikerketa prozesu batean inplikatu ziren.

Prestakuntza horrek Herri Hezkuntzaren printzipioetako bi lantzen ditu, hots, ezagutza kokatua eta gizarte eraldaketa. Lehenengoak aitortu egiten du ezagutzaren ekoizpena esperientziak eta testuinguruak zeharkatzen dutela. Horregatik, emakume migratuek labirinto burokratikoaren eta jasotako tratua inguruan duten esperientzia aintzat hartzen da.

Detektatutako oztopo administratiboak eta mikroarrazakeriak aktoreentzako gidoian sartu ziren. Proposatutako elkarrizketen helburua ez da erakunde publikoak erakustea; baizik eta operadore batzuek jartzen dituzten oztopo administratiboak eta mikroarrazakeriak bistaratzea, horiek gizartearen parte ere baitira.

Esan bezala, gizarte eraldaketa da bigarren printzipioa, eta Zapalduaren Antzerkiaren zergatiarekin berarekin bat dator: benetako arazo bat antzezten da eta errealitatea eraldatzera animatzen da. Emakume migratuak eta arrazializatuak ahaldundu egiten dira prestakuntza prozesuan, eta zapaltzen dituzten instituzioak antzeztea lortzen dute.

Beste alde batetik, bertako lagunek beren pribilegioa uzten dute, une batez, pertsona migratuaren, arrazializatuaren eta disidentearen rola egiteko, eta arrazakeria estrukturalaren ondorioak sentitzen dituzte. Gainera, rol aldaketaren bitartez, zapalkuntza horiek bizi dituztenen birbiktimizazioa ekiditen da.

Aipatu beharra dago prestakuntza oso zaindua izan dela, sortzeko unetik beretik. Horretan, Nathalie Bejarano Castro psikologoak parte hartzen du, prozesu osoan zehar babes emozionala emateko. Antzezleen kasuan, entseguetan batzuk emozionalki gaindituta sentitu dira, antzeztan ari ziren egoera hura bizi izandakoaren antzekoa baitzen.

Beste kasu batzuetan, ez ziren zapaltzailearekin identifikatzen, (hala sortzen da kontraesana) izan ere, haiek, beren eguneroko bizitzan, ez lukete horrela jokatu. Zapaltzailearen rolaren ondorioek (ondoeza edo tristura eragitea) deserosotasun emozionala eragin diezaioke egunerokoan rol hura jokatzeke aukerarik ez duenari.

Beste alde batetik, tailerraren parte-hartzaileak larrituta senti daitezke, eta beren zaugarritasunarekin konekta dezakete. Horrek ezinegon emozionala eragin dezake. Horregatik, babes emozionalak ikuspegi adikor bat ematen du; alde batetik, parte-hartzaileen emozioen adierazpenari dagokionez, eta, bestetik, antzezleen autokonfiantza sostengatzen eta errazten du.

Azkenik, antzerki-tailerra hausnarketa-une batekin bukatzen da, eta horretan metodologiaren hartzaileek parte hartzen dute. Ere mu hura Nathalie Bejaranok eta Emilia Larrondok bideratuko dute. Nathaliek ariketan zehar sortutako emozioak jasoko ditu eta migrazio-prozesuaren ondorio emozionalak landuko ditu.

Beste alde batetik, Emiliak arrazakeria estrukturalaren eta kolonialismoaren ondorioetara bideratuko du hausnarketa, horiek gizarte-ordena bat osatzen baitute: Ipar/Hego globala eta gaur egun indarrean jarraitzen duen menpekotasuneko eta estraktibismoko korrelazioa.

Eremu horren helburua pribilegio zuria kolokan jartzea da, eta bakoitzak duen botere-gunetik ekintzak abiatzera animatzea (egitea); kasu honetan, emakume migratuek, arrazializatuek eta disidenteeek bizi dituzten bidegabekeriei aurre egiteko.

Problematika horretan sartzeak eta hausnartzeak, emakume migratuei eta arrazializatuiei sozialki lotutako estereotipoak eta aurreiritziak ezabatzen lagunduko dutela espero dugu. Are gehiago, "Gu, Besteak" tailerrak aldaketa indibidualak eta kolektiboak lortzeko aukera ematen die parte-hartzaileei, emakumeen eskubideen eta gizarte ez-arrazista baten alde.

Beraz, gida metodologiko hau gizarte erakundeei, irakasleei, Estatuko operadoreei eta gizarte zibil antolatuari zuzenduta dago, zehazki, 14 urtetik gorako lagunei.

Eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu honetan konfiantza izan duten lagun guztiei, prestakuntza prozesuaren parte izan zirenei, entsegu orokorretan parte hartu zuten emakume eta konplize feministei, eta sentituz-pentsatuz eta artearen bitartez gizartea eraldatzeko helburu argiarekin metodologia hau erabiliko duten pertsona guztiei, eskerrik asko!




JARRAIBIDEAK



AURKEZPEN-EREMUA

Toki zabal bat behar dugu, 6 gune kokatzeko:

Lanbide / Eusko Jaurlaritzaren Osakidetza, Errola / Homologazioa / Gizarte Segurantzaren Polizia / Atzeritarrentzako bulegoa, Higiezinaren agentzia / enplegatuak eta Laguntza Sarea (familia, lagunak, elkarteak).



Guneak bi aulki eta mahi batez osa daitezke. Horietako bakoitza identifikatzen duten kartelak jarriko dira.



METODOLOGIA HONETAN PARTE HARTUKO DUTEN LAGUNAK

Sei lagunekin hasiko gara. Haiek Euskal herrian bizi diren sei emakume migratu eta arrazializatu hauen istorioak antzertuko dituzte: Claudia, Olatz, Roxana, Itzel, Marta eta Andrea.



Pertsonaia bakoitzak itzal bat izan dezake, gehienez hiru. Beraz, gutxienez sei lagun izango dira eta gehienez 24.

Erakundeen rola antzeten dituzten pertsonak emakume migratuak izango dira (bat edo bi gune bakoitzeko). Emakume horiek prestakuntza integraleko prozesua bat egin dute. Horretan, ezagutza kokatutik abiatuta, eztabaidatu egin dute, eta beren esperientziari buruz hausnartu dute (emakume migranteak diren aldetik), Zapalduaren Antzerkiko teknikak ikasi dituzte eta, azkenik, antzetzeko dituzten erakundeei buruzko ikerketa egin dute.



PERTSONAIK

Bizi-istorioa antzeztuko duen pertsonari honako hau emango diogu:

Bere pertsonaiaren identifikazio-txartel bat. Lepotik zintzilik jarriko du, hura identifikatzea errazteko.



Bere pertsonaiaren izenaz markatutako motxila. Motxila bizkarrean eraman beharko du metodologiak irauten bitartean eta ezin izango du kendu (osasun kontu batengatik ez bada). Motxila liburuz beteko da pisua handitzeko, hura ez dator metodologian.



*Motxilak karga emozionalak eta ekonomikoak sinbolizatzen ditu. Horiek, alde batetik, familia eta testuingurua uztearen ondorio dira, eta, bestetik, harrera herrian aurkitutako zailtasunen aurrean sentitzen den inpotenziaren emaitza.

Bere pertsonaiaren arabera dagozkion istorio-txartelak (Hasierako txartel bat, Azken txartel bat, eta beste txartel batzuk, pertsonaiaren arabera).



ITZALAK

Itzalaren eginkizuna ibilbide osoan pertsonaiari jarraitzea da, eta pertsonaiak erakundeekin izango duen elkarrizketari erreparatzea, esku-hartu gabe. Itzalak dagozkion itzal-txartelak jasoko dituzte (pertsonaiaren arabera). Horietan adierazi egiten zaie noiz hartu behar duten parte. Beren eginkizuna, orduan, txartelean adierazitako mezua belarrira esatea izango da, etengabe eta itogarriri.

*Itzalak “barneko ni” mentala eta zorrotza irudikatzen du, baita modu inkontzientean kalte egiten diguten estereotipo sozialak ere.



TXARTEL GORRIA

Metodologia hau ez da jolas bat, benetako gertakarietan oinarritutako istorioak dira, eta, beraz, errespetua merezi dute. Gune bakoitzean sei txartel gorri daude, eta guneko arduradunak horiek erabili ahal izango ditu errespetu faltaren bat hautematen badu. Txartel gorria altxatzen bada, pertsonaia antzetzen duen pertsonak edo bere itzalak ohartarazpen bat jasoko dute, edo zuzenean kanporatuak izango dira.



NOLA GARATUKO DA

Instituzioen rola antzezten duten emakume migratuak karakterizatu egingo dira (janzkera edo tresneria), eta dagozkien gunean kokatuko dira.

Sei talde osatuko ditugu eta pertsonaiaren edo itzalaren rolak banatuko dira, parte-hartzaile kopuruaren arabera.

Txartelak (hasierakoa, interaktiboak eta azkena) emango dizkiogu pertsonaia bakoitzari. Pertsonaiek beren Hasierako Txartela irakurriko dute, eta itzalek adi entzungo diete. Antzezlea pertsonaian sartu ahal izatea eta itzalek haren istorioa ezagutzea da helburua.

Itzal izena aukeratu dugu beren eginkizuna azaltzeko eta nola jokatu behar duten ulertzen laguntzeko. Haiei Itzal Txartelak emango dizkiegu, lagunduko duten pertsonaiaren arabera. Itzalak beren pertsonaien ondora itzuliko dira.

Dinamikari hasiera emango diogu, Hasierako Txartelaren amaieran zein gunera joan behar duen adieraziko da. Gunean elkarrizketa bat izango dute, problematikaren arabera, eta bertan beste txartel bat emango diote pertsonaiari, jarraian zein gunera joan behar duen jakin dezan.

Metodologia horrela garatuko da gunee gehienetatik igaro arte. Pertsonaia guztiek beren ibilbidea amaitzen dutenean, Azken Txartela irakurriko da, eta lehenengo zatiari amaiera emango diogu. Gero, hausnarketa-eremu bat zabalduko dugu; horretarako, pertsonaiek eta beren itzalek zirkulu bat osatuko dute.

OSOKO BILKURA ETA AZKEN HAUSNARKETA



Eremu hau psikologo batek eta soziologo batek dinamizatuko dute. Lehen migrazioko doluan aditua da. Hark prozesuaren dimentsio emozionala jasoko du, eta migrazioaren kostuetan sakonduko du: osasun mentala eta erreferenteak eta harremanak galtzea.

Soziologoak, aldiz, eskarmentu handia du emakume migratuekin lan egiten, eta arrazakeria estrukturalari eta kolonialismoari buruz hausnartuko du. Halaber, gizarte bidezkoago bat sustatzeko ekintzak garatzearen garrantzia azpimarratuko du (erantzukizun soziala).

Pertsonaiei ongi etorria emango diegu hausnarketa gunera, eta honako hauei erantzuteko eskatuko diegu:

- Nor naiz eta nor antzeztu behar izan dut
- Zein da nire pertsonaiaren istorioa
- Zer sentitu dut

Psikologoak antzezleek adierazitakoa jasoko du, eta motxila irekitzeko eskatuko die, beren bizkarrean eraman duten mezua ikus dezaten.

Gero honako hauei erantzuteko eskatuko diegu itzalei:

- Nor naiz eta zein izan da nire rola
- Zer sentitu dut
- Zein izan da gehien hunkitu nauen unea.

Saioa amaitzeko itxiera bat egingo dugu eta konpromisoak hartuko ditugu.

DENBORA

Metodologiaren iraupena bi ordukoa izango da gutxi gorabehera.

GOMENDIOAK

“Aktoreentzako gidoia” dokumentuko elkarrizketak honako hauek garatu zituzten, prestakuntza eta ikerketa kolektiboko prozesu baten bitartez: hamabi emakume migratu, Zapalduaren Antzerkian aditu diren bi emakume, soziologo bat, generoari eta migrazioei buruzko lanetan ibilitako psikologo bat eta Lumaltikeko taldea.

Dokumentu hau jarduteko gida bat izan nahi du; beraz, aldez aurretik tramite burokratikoari buruzko ikerketa-prozesu bat egitea komeni da, bere edukia testuinguruan jartzeko eta eguneratzeko.

Prestakuntza integraleko prozesu baterako, Zapalduaren Antzerkiaren teknikan trebatzea ere komeni da. Hala, identifikatu nahi dugu nola erreproduzitzen dituzten zenbait funtzionariok mikroarrazakeriak eta paternalismoa, eta horiek antzestu nahi ditugu.

Azkenik, azken hausnarketa oso garrantzitsua da, eta, hortaz, pertsona gaituak behar ditugu, prozesuaren dimentsio emozionala sostengatzeko eta gizarte-eraldaketako ekintzak eragingo dituzten hausnarketa kritikoak sustatzeko.

 **EDUKIA**





“Gu, Besteak” metodologiaren aurkezpena eta jarraibideak.

- 6 identifikazio-txartel
(Claudia, Olatz, Roxana, Itzel, Marta, Andrea)
- 6 hasierako txartel
- 25 interakzio-txartel
(Claudia 5, Olatz 4, Roxana 5, Itzel 3, Marta 4, Andrea 4)
- 18 itzal-txartel
(Claudia 3, Olatz 3, Roxana 4, Itzel 2, Marta 3, Andrea 3)
- 6 azken txartel
- 6 txartel gorri
- 6 kartel instituzioak identifikatzeko
- 6 gidoi instituzioetako aktoreentzat
- 6 txartel pertsonaien motxila identifikatzeko
- 6 mezu pertsonaien motxilarako





lumatik
HERRIAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

